Informazio-gida

Arloa: EROSKETAK ETA ZERBITZUAK

Formatua: SOLASALDIA

# Etxebizitza alokatzea eta erostea



kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## JUSTIFIKAZIOA

Kontsumitzaile gisa eskubidea daukagu erosiko ditugun ondasunei eta haien egoerari buruzko informazioa ezagutzeko. Hau, are garrantzitsuago bihurtzen da etxebizitzari buruz hitz egiten dugunean. Horregatik, etxebizitza bat alokatu edo erosterako orduan informazio eta laguntza posible guztia edukitzea funtsezkoa da.

## HELBURUAK

- Etxebizitzaren alokairu eta erosketari (eta horrekin lotutako alderdiei) buruz informazioa, baliabideak eta oinarrizko orientazioa eskaintzea.
- Erakunde publikoei eta etxebizitza eskaerari lotuta dauden laguntzei dagokion informazioa ezagutaraztea.

## EDUKIAK

- Alokairua: kontratua, fidantzak, iraupena, alokatzea, horniketak, lanak, eskubideak eta betebeharrak.
- Erosketa: eman beharreko pausoak.
- Etxebizitza bati bisita. Kontuan izan beharreko alderdiak.
- Etxebizitza kontuan aginpidea daukaten erakunde publikoak.
- Etxebizitza askea – Babes ofizialeko etxebizitza.
- Eska daitezkeen laguntzak.

## JARDUERAK

### HASIERAKO FASEA (Aurretiko jarduera)

- Galdeketa indibiduala, etxebizitza alokatzerako orduan kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuei buruz.

### GARAPEN FASEA (Saioa)

- Erakusketa interaktiboa, etxebizitza bat alokatzerakoan kontuan hartu beharreko alderdiak jorratuz.
- Erakusketa interaktiboa, etxebizitza bat erosteko eman beharreko pausoekin.
- Alokatzen den edo salgai dagoen etxebizitza bat bisitatzearen simulazioa, zeri erreparatu behar diogun ikusteko.
- Kasu ezberdinen azterketa, prozesu honetan aurkitu ahal ditugun arazoak konpontzeko.
- Etxebizitza libre eta babes ofizialeko etxebizitzaren arteko konparaketa, ezberdintasunak ikusteko.
- Bilaketa gidatua, etxebizitza arloan aginpidea daukaten erakunde publikoak eta eskaintzen dituzten laguntzak ikusteko.

| | |
|---|---|
| **APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (Ondorengo jarduera)** | • Aurretiko jardueran egin den galdeketa berbera eta konparaketa zer ikasi duten ikusteko.<br>• PDF interaktiboa etxebizitzaren bilaketarako laguntzari buruzko informazioarekin. |

## OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

| | |
|---|---|
| **DIZIPLINAKOAK** | • Konpetentzia teknologikoa.<br>• Konpetentzia sozial eta zibikoa. |
| **ZEHARKAKOAK** | • Hitzezko komunikazio, ez-hitzezko komunikazio eta komunikazio digitalerako konpetentzia.<br>• Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.<br>• Elkarbizitzarako konpetentzia.<br>• Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.<br>• Izaten jakiteko konpetentzia. |

## METODOLOGIA

- Lan indibiduala.
- Lan kolaboratiboa.
- Kasuen azterketa.
- Tutore-akonpainamendua.

## ANTOLAKUNTZA

| IKT baliabideak eta tresnak | Espazioak eta taldeak | Iraupena |
|---|---|---|
| Ordenagailua.<br>Proiektorea eta kanoia edo PDI. | Taldea pantailari eta pertsona hezitzaileari begira esertzen da pantailako ariketak jarraitu ahal izateko. | 90’ |

## EBALUAZIOA

| IRAKASLEAK | IKASLEAK |
|---|---|
| Ebaluazio inkesta. | Ebaluazio inkesta. |